

Mendekua UEUn

Xabier Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1997



Zumaiaiko Udala

*enskar
txanpa*



Mendekua UEUn

Xabier Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 10. ipuin lehiaketa

1997

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Ez dakit zer ordu izango den, baina pertsiana artetik eguzki-izpiak garbi samar sartzen direnez, zazpiak ondo jota izango direla pentsatzen dut. Nekatuta nago, baina nahiago nuke neke guztiak horrelakoak balira. Erdi esna, erdi lo, horrelaxe nabil azken minutuetan. Taberna eta izerdi usaina dago gelan; normala, atzo ibili ginen bezala ibili ondoren. Albo batera begiratu dut eta hor ikusi ditut galtzak mahai gainean, kamiseta aukitik zintzilik, beste galtza batzuk lurrean, beste kamiseta bat mahai azpian, eta lurrean nahasturik, galtzontziloak, kulerotxoak eta sostena. Hauen artean, ia galduta, preserbatibo bat ageri da, ondo korapilatuta, barruan isurkin bizia duelarik. Txukuntasun handirik gabeko paisaia da, baina era berean, eta badakit zergatik, ederra iruditu zait. Nire ondoan, ia nire gainean dagoen neska hori bezain ederra, ia.

Amaia da. Bai, ezta? Ez nago ziur. Lehendik ere ikusia nuen, hizkuntzalaritzako klasean eskuin aldean esertzen baita, eta herenegun elkarrengandik oso hurbil egon ginen bazkaltzen. Atzo arratsaldean, uztailaren 2. hamabostaldian Iruñean egin ohi duen bero sapatekin, futbito-partidua jokatzera animatu zen neska bakarra izan zen. Martin kazetaria ibili zen partidua antolatzen, Tourreko etapa ikusten aldamenean izaten dudana, eta ez nuen espero neska hau apuntatuko zenik, "euskalkien presentzia euskara batuan" mahai-ingurua baitzegoen ordu berean hitzaldi-aretoan. Baina han azaldu zen, galtza motzak jantzita. Eta nola jokatu gainera? Lotsagabe, hanka sartzeko beldurrik gabe. Horrelakoak gustatzen zaizkit niri, neska kirolzale eta lotsagabeak. Ikastolan nenbilenean hainbeste gustatzen zitzaidan neska haren antza hartu nion, hasiera-hasieratik. Baina, ez, hau politagoa iruditu zait.

Afalondoren ere ikusi nuen, poesia emanaldian. Kuriosoa izan zen saioa, izenburutik bertatik hasita. Nola zen? A bai: "Poesiarik irakurtzen ez dutenentzako poesia". Gerardo Markuleta eta Pili Kaltzada aritu ziren errezititzen, gitarrista bat, ogibidez pastel pornoak egiten omen dituen tipo bat, lagun zutela. Zerbeza eskuan hartuta Nikolasen ondoan egon nintzen, eta inguruan neuzkan UEUko beteranoak: Xabi Rico gasteiztarra, Joxin portero ibili zen saltseroa, J.R. jo ta ke erretzen ez den Etxeberria nekazaria, Aizpuru gure zuzendari jauna —Andoniren anaia omen da!—, Bilboko neskazahar musikazaleak, Nagore donostiarra eta gainerako parranderak, eta betiko jendilajea. Tarteka Amaia eta beste neska batzuk zeuden lekura begiratzen nuen, disimuluan, W. H. Audenen olerki hau entzun nuenean:

Forma fin bat ikus dezazunean
harrapa ezazu
eta ahal baduzu, besarka ezazu,
Neskatila dela edo mutikoa bada ere,
Ez zaitez lotsatia izan, izan zaitez ausarta, alaia,
Bizitza laburra da, goza ezazu
zure haragiaren ukiduraz
laket zaizun momentuan.
Ez dago larrua jotzerik hilobian.

"UEUn ere ez modu dotorian" esan nion Nikolasi belarrira, eta honen algara eskandalosoek jende guztia guri begira jarrarazi zuen. Hau lotsa! Ondo joan zen, bestela, atzoko gaua. Ekitaldiaren ondoren, atarian elkartu eta Kanpi "buruzagiaren" atzetik Kaldereria aldera joan ginen, atzetik zebilkigun Erramun pelmazoarengandik ihesi.

Zurito batzuk edan, futbolinean partidatxo batzuk jokatu, Tola herrikidearekin bertsotan jardun, eta beti bezala, azkeneko tabernara arte. Atzo dantzarako gogoia nuen, eta horrelakoetan ojo! Pare bat metro behar izaten ditut inguruan lasai mugitzeko. Ilargi betea zela uste dut, gainera: auuuuuuuuuuuuu! Kontuz gero gizon-otsoarekin! Azkeneko zuloko tabernaria ere animatuta zegoen. Egongo ez zen ba; sanferminak igaro berriak, eta gau hartan negozioa egitera zihoan gu bezalako parrandero zikin batzuekin. Kontua da barmana umorean zegoela eta gero eta martxa gehiago jartzen hasi zela: Negu Gorriak, Barricada, Macka B, Exkixu, Nirvana, Huajoloteak... eta baita euskal bakailaoa ere, "goazen, goazen, euskaldun guztiok ikurrinaren atzean" dioen kanta. Ni, normal nagoenean, Tolaren uste berekoa naiz: "Bakailaoa? Saltsan bakarrik, eta Zubietako sagardoarekin lagunduta bada, hobeto oraindik". Baina atzo ilargi betea zen, eta animatuta nengoen.

Amaia eta biok aurrez aurre aplikatu ginenean, zein baino zein zoroago aritu ginen dantza ero bero batean. Sorgina zirudien, eta berehalaxe sorgindu ninduen atzo gaueko akelarrean. Baina pixkanaka ordu txikiak handitzen joan ziren, eta zerbeza-barrika beherantz zihoan, azken kanta ere iritsi zenean: Bob Marley-en "Woman no cry". Bata bestearen aurrean geundenez, bere begi-keinuari erantzunez gerri aldera luzatu nituen eskuak, berak nire lepo aldera. Hordiaren erdiak izerditan bota genituela iruditzen zait, hain geunden berotuta. Gero eta hurbilago, bularrek lehendabizikoz elkar ezagutu zuten. Buruek ere aurreko sorbaldek eskainitako atsedinari ez zioten ezezkorik esan.

Kanta bukatu orduko, ezer esan gabe, baina konplizitate keinu batekin, taldekoen begietatik ihes egin genuen, ahal zen erarik "disimulatuenean". Freskura ederra zegoen kanpoan, ez zen Zitudadelako belarretan jolasean ibiltzeko girorik egokiena. Berak autoa bazuela aprobeztatuz, ziztu bizian abiatu ginen Larraona aldera, Pio XII hiribidean aurrera, ez dakit zeri buruz hizketan. Izenaz gain, debarra dela jakin nuen behintzat, eta euskal filologia ikasten dabilela. Ni Oier naizela esan nion, Usurbilgoa, eta irakasle nagoela Zarauzko ikastetxe batean. Eskolako atea itxi baino lehen justu antzean iritsi, atezainari gabon esan eta giltzak hartu ondoren igogailura sartu ginen. "Dantzan

jarraitzeko gogorik bai?" galdetu zidan, eta "Zurean ala nirean?" esan nion; "Zurean" erantzun zidan, ondoan ez dakit nor zegoela-eta.

Hortik aurrerakoa hain azkar joan zen! Basatia izan zen, baina era berean goxoa. Zabaleran 90 cm besterik ez dituen ohe honetan zirku ederra antolatu genuen; ekilibrista bikainak garela frogatu genuen behintzat. Ez zuen tabernako dantza saioaren inbidiarik izan; musikarik gabe, baina erritmo ederrarekin. Batek UH! besteak EH! berriro UH! Gora UEU!! Ederki ospatu genituen UEUren zilarrezko ezteiak! Hau guztia gogoratzean irribarreak irten dit, eta orduantxe irten du baita ere Amaiak bere lozorrotik.

—Egun on —esan diot maitekiro.

—Munonn —edo antzeko zerbait atera da bere ezpain mamitsuetatik.

Izara bakar batek estaltzen gaitu. Manta ohe barrenean dago, eta ohe gaineko estalkia lurrean. Ohe estu honen ezker aldean nago, sabaiari begira. Oraindik ere gehiago hurbildu nahian bere belauna nire eskuin izterraren gainera luzatu du; bularra bularraren gainean burua nire besaburuan pausatu du eta ezker eskuarekin kokoteko nire kiribilekin jolasean hasi da. Eskuin besoarekin inguratu dut, eta atzo gauean bezala eskua gerri aldera eraman ondoren, ipurmasailean laztanak, kilimak eta atximurka txikiak tartekatu ditut. Azal zoragarria du neska honek, leun-leuna, ukizaillearen gozagarri.

—Beltxarana zaude, politta. Gainera ez dizut bainujantziaren markarik ikusten —esatera ausartu naiz.

—Sakoneta edo Saturraran aldera joaten naiz noizean behin koadrilakoekin. Gozada bat da larru gorritan hondartzan ibiltzea. Aizu, zer ordu ote da?

—Ez dakit, egun-argi dago behintzat, baina ez zait batere axola. Gustura nago horrela; nekatu samar ere bai, ordea.

Eskuineko eskuarekin ere jolasean ari da Amaia. Ez dirudi bera hain nekatua dagoenik. Irribarre egiten duenean Alaitz pandero-jolearen antza hartzen diot; bai, "txanpon baten truke" abesten duen pinpilinpauza horrena. Koadrilako Igorren teoriaren arabera pandero-joleak dira neskarik interesgarrienak, beti larrua jotzen omen daude-eta. Gordin samarra da gure Igor, baina azkenaldian Alaitz eta Mainerren kontzertu guztietara joan zaigu, zeren bila ez dakit.

Nire bular batetik bestera dabilta Amaiaren behatzak, erdiko ileetan irudi imajinarioak marrartzuz. Goian aspertu denez, beherantz darama eskua, bizkor, baina lasai. Zilborraren zulotxoan sartu du erakuslea, jostari. Nik ere jokaldi bihurri berarekin erantzun diot, baina indar pixka bat eginez, kilimak atera dizkiodan arte. Biok ere barre egin dugu, gogotik. Berotzen hasia naiz, egia esan. Kopetan musu bat eman eta sudurraren ibilbidea jarraituz bere ezpain goxoen bila joan naiz. Amaiaren eskuak beherantz jarraitu du bere bidean, bide berean. Erdian geratu da, ordea, eta inguru horretan zerbait arraroa topatu duenez aztertzen aritu da, hatz muturrez. Badakit zer aurkitu duen. Burua altxa du.

—Apendizitisaren marka al da hau?

—Ez; hala dirudien arren, ez.

Neure kolkorako baiezkua ematea hobe nuela pentsatu dut, berak

galdetu beharrekoa galdetu baino lehentxeago.

—Eta nola egin zenuen ba? —bota dit, kuriositatez.

—Bat-batean esanda ez zenidake sinetsiko, eta orain kontatzen hasteko istorio luzeegia da.

Esan dudan bezala esan ondoren uste dut misterio kutsua hartu diola kontu honi, eta biziki interesaturik, burkoa hormaren kontra jarri eta erdi eserita jarri da, adi-adi. Ez dut beste aukerarik, eta berotasunak gerorako utzi beharko ditudala iruditzen zait. Aitonak bilobari sutondoan bezala, nire kontakizunarekin hasi natzaio.

—1992a zela uste dut. Bai, karrerako lehen urtearen ondoren izan zen. Uztaila zen eta urte hartan Zuaza uhartera joatea erabaki nuen, lanera.

—Barkatu Oier, uharte hori ez al dago Ulibarri-Ganboa urtegian? Gasteiztik Arrasatera bidean, ezta? Hor piraguan ibili izan naiz ni.

—Bai, horixe da. "Untxien irla" ere deitzen diote eta ondoan beste irlatxo bat dago, "Pottoken irla" izenekoa. Maiatzean hasi eta iraila bitartean eskoletako jendea joaten da, haurrak eta gaztetxoak batez ere. Eta uztailean udalekuak antolatzen dituzte, euskaraz. Ikastolen elkartean izena eman nuen eta ikastaroa egina nuenez begirale lanetarako onartu ninduten. Garai hartan hurrekin aritzea gustukoa nuen eta ondo etorriko zitzaidan sos batzuk irabaztea, gero udan herriz herri, festarik festa ibili ahal izateko.

—Joder! Aspaldidanik datorkizu orduan parrandarako grina! —buruarekin gora eta beheara eginez, errieta egin nahian bezala.

—Bai amatxo, baina hori beste kontu bat da. Han ere ez pentsa txintxo-txintxo ibiltzen ginenik. Gaueko bileran eguneko balorazioa egin, haurren eskutitzak irakurri barre pixka bat egin, bat edo beste zentsuratu, eta hurrengo eguneko ekintzak prestatzen genituen. Ondoren begirale bat edo bi geratzen ziren kanpamentua zaintzen, eta gainontzekoak Pottokerara joaten ginen, gauez irekitzen zuten hango taberna moduko biltoki batera.

—Ondo prestatua dago uharte orduan, ezta?

—Bai, neska. Han 10 kanpamentu daude, dutxa eta komunak 4 eraikin, zuzendari eta ekintzetako begiraleen etxolak, 500 lagunentzako jangela...

—500? —harridura aurpegiz.

—Bai, han biltzen ginen 400 haur, 40 begirale, 10 zuzendariorde... A zer burukomina jatorduetan hango iskanbilarekin! Baina ondo zihoan hamabostaldia; behin bakarrik egin zuen eurria, bi irteerak ederki joan ziren, hurrek ez zuten ia negarrik egiten eta Manexek paketea berak bakarrik aldatzen ikasi zuen.

—Paketea? Zer, dodotisa? Zenbat urte zituen ba?

—10-11 urte zituzten, baina beti izaten da horrelako elementuren bat tartean. Eta gurasoek ez dizute ezer jakinarazten gainera, horregatik seme-alabak hartuko ez dituzten beldurrez. Baina horrelako kontuak eta eguneko nekeak gauean Pottokeran ahaztu egiten ziren, eta gero eta giro hobea zegoen egun haietan: mus-partidak, mozorroen gaua, etorri ez ziren begiraleei egiten genizkien putadak...

—Ligatu ere, ligatuko zenuten noski...

—Bueno, pixka bat. Badakizu, UEUn eta barnetegietan bezala, herri ezberdinetako gazte talde euskaldun bat, martxarako gogoarekin elkartzen bada... Intimitatea aurkitzea ez zen erraza izaten, ordea; eta hori bai, ez zen hemen bezainbesteko erosotasunik, ohe alu hau estu samarra bada ere. Portzierto, datorren urterako ohe zabalagoak jartzeko proposa dezakegu biharko ebaluazioan, matrimoniokoak-edo. Baina kontu hauek alde batera utzita hobe izango dut istorioarekin jarraitzea, oraindik ia ez naiz hasi-eta. Hamahirua zela uste dut; bi egun besterik ez ziren falta behintzat, hamabostaldia bukatzeko. Ostirala izango zen, baina ez nago ziur, han denboraren nozioa erabat galtzen baita. Hori bai, ilargi betea tokatzen zen eta eguna ondo joan zela gogoratzen dut; goizean piraguetan ibili ziren haurrak eta arratsaldean arraunean. Jatorduetan ere ez zen aparteko istilurik izan. Afalondoren denok batera abiatu ginen erdi ilunpetan gure kanpamentura, 4.era. Aurreko gauean erabaki genuen bezala, BELDURRAREN GAUA izango zen egun hartakoa, eta begirale guztion artean beldurrezko istorio bat kontatuko genien haurrei.

—Pila bat gustatzen zaizkit beldurrezko istorioak —berriz ere nire hitz-jarioa moztera ausartu da Amaia—. Txikitan aitak bat edo beste kontatzen zigun eta ahizpa eta biok elkarren ondoan egin nahi izaten genuen lo. Baina orain beldurrezko filmak pila bat gustatzen zaizkit, eta honi "Viernes 13" famatuaren usaina hartzen diot.

—Aizu! Ni serio ari naiz, e? —esan diot, moskeatu aurpegia jarriz—. Ea ba. Egia esan, zalantzan egon ginen, haurrak txiki samarrak zirelako. Norbaitek esan zuen agian gurasoak kexatu egingo zirela beren seme-alabek dena kontatzen bazieten, baina azkenean probatzea erabaki genuen. Neska-mutilak argiaren inguruan bildu eta batez ere Unai zuzendariordea eta biok ekin genion istorioa kontatzeari. Gutxi gorabehera honela kontatu genien:

Ikusten al duzue nolako ilargia dagoen? Bai, bete-betea. Hilean behin jartzen da horrela. Gu jaiotzeko geunden oraindik istorio hau gertatu zenean. Badakizue hemengo hau urtegi bat dela, pantano bat. Lehen, ordea, hemen ez zegoen urik; ibai bat pasatzen zen, besterik ez. Dena mendia zen eta herrixkak zituen inguruan; batzuk oraindik hor daude, gainera: Ulibarri-Ganboa, Landa, atzoko irteeran ikusi genuen Marieta... Baina hauek baino beherago bazegoen beste herrixka bat, Zuaza izena zuena. Bai, irla honek bezalaxe.

Ba gertatu zen Bilbo eta Gasteizen edateko eta beste gauzetarako ur gutxi zegoela, eta arazo hori konpontzeko urtegi hau egitea erabaki zuten. Hirietan ur nahikoa egongo zen, baina urtegia eginez gero Zuaza herria urez estalita geratuko zen. Herriko jendea ez zegoen konforme; protesta gogorak egin zituzten, apaiza buru zutela, ez baitzeuden beraien etxe eta lurak hain erraz uzteko prest. Nola ba? Beren bizitza guztian han bizi izan ziren-eta! Baina azkenean beste herrietan etxe gehiago egin zituzten eta dirua eta lur batzuk ere eman zizkietenez, Zuazako biztanleak han jarriko ziren bizitzen. Gogoz kontra alde egin zuten, baina ez zuten beste aukerarik. Guztiek alde egin zuten herritik, ustez.

—Joder! Honek Itoizko asuntua gogorarazten dit. Hori guztia benetan gertatu al zen?

—Orain artekoa antzeratsu gertatu zela uste dut. Urtegia hor dago, herria ere hor omen dago, eta gainera urte hartan lehorteak izan zenez etxeen arrasto batzuk agerian geratu ziren. Orain dator tomateak, ordea. Esaten ari nintzenez...

Obrak hasi ziren eta horma handiak egin zituzten. Bai, lehengo astean Legutiorako irteeran ikusi genituen haiek. Pixkanaka urtegia betetzen eta Zuaza estaltzen hasi zen. Orain irla den hau lehen mendixka bat zen eta horregatik ura ez zen honaino iritsi. Piraguan ibili zaretenean ikusi dituzue ba harri batzuk uretatik irteten, jangelaren atzealdean? Horiek dira Zuaza herriaren arrastoak.

Zuazako etxeak ur azpian desagertzen ari ziren. Eliza goraxeago zegoenez oraindik ere ikusten zen, kanpandorrea behintzat. Egun batean haize izugarria atera zen eta aldiari behin trumoiak eta tximistak tartekatzen ziren. Izugarritzko erauntsia izan zen. Eta bat-batean, elizako kanpaiak jotzen hasi ziren; bai, Zuazan. Gaua zen, ilargi bete zegoen, gaur bezala. Inguruetako jendea beldurtu egin zen, ikaratu. Nor ari ote zen kanpaiak jotzen? Norbaitek agian apaiza izango zela komentatu zuen. Orduan konturatu ziren Zuazako biztanleak On Torkuato falta zela, inork ez zuela aspaldian ikusi eta ziurrenik elizan egongo zela.

Nola dakigun hau dena? Badakizue Unai gasteiztarra dela, baina bere amona Zuazakoa zen; oraindik ere bizi da, eta kontatzen ari garen guztia bere begien aurrean ikusi zuela zin egiten du.

Bitartean ura gorantz zihoan. Jendea batel baten bila aritu zen, alferrik. Jadanik kanpandorrearen punta bakarrik ageri zen, baina kanpaiek joka jarraitzen zuten. Zenbait herritarrek, Unairen amona tartean zelarrik, erretorea ere ikusi omen zuten, On Torkuato, kanpaien inguruan bueltaka. Herriko maisuak "Mendekua! Mendekua!" nola esaten zuen ere entzun omen zuen. Ezin izan zuten ezer egin; kanpaien soinuarekin batera, On Torkuato eta Zuazako terreno guztiak ito ziren, gu gaudeneko lur hauek salbu.

Hurrengo egunetan urpekariak aritu ziren jo eta su, On Torkuatoren gorpuaren bila. Baina ez zuten aurkitu. Hemen inguruko baserritarrek kontatzen dutenez, ilargi beteko gau batzuetan On Torkuatoren arima herratua ikusi omen dute, noraezean, "Mendekua! Mendekua!" oihukatuz. Horregatik, gaur bezalako egunetan etxeetan jendea gela batean biltzen da, arrosarioa errezatzen dute eta ez dira, inolaz ere, kalera irteten. Unairen amonak esaten duenez koplak hauek atera omen zituen, besteak beste, herriko bertso-jartzaileak:

*Nahiz eta orain gure apaiza
ur azpian zaigun ito
On Torkuatoren izpirituak
ez gaitu inoiz utziko*

*Urtegiaren inguruetan
hilean behin ilbetean
zuazatarrok zainduko gaitu
bizirik gauden artean*

*Otoitz egingo dugu guztiok
igande goizeko mezan
haserretuta dabilenean
mendekurik har ez dezan*

Duela hiru urte, aurten bezala urak jaitsita zeudenean, irlan zehar ere sumatu zutela esan digu Koldok, hemengo zuzendariak, Gaur ilargi betea dagoela uste dut, baina zuek ez gehiegi kezkatu, gu hemen gaude-eta, zuek zaintzeko. Gainera, ez zaigu iruditzen zuek bezalako hurrei ezer egingo dienik.

—Kopla eta guzti, istorioa gogor samarra ez al da 10 urteko haurrentzat?

—Bai, baina kontatzen ari ginela emozionatu egin ginen, eta ezin izan genuen atzera egin. Koplak nik neuk asmatu nituen, Usurbilgo Bota Punttuba bertso-eskolan ez bainaiz hiru urtetan alferrik ibili. Eta oso-osorik sinetsi zuten istorioa. Ikustekoak ziren haien aurpegiak! Manexen inguruan kirats nazkagarri bat nabari zen; kaka eta guzti egingo zuen praketan, baina ez zion inork ezer esan. Galderez josi gintuzten: ea nolakoa zen fantasma hori, zer egiten zuen... Denek ere begiraleren batekin lo egitea nahi zuten, badaezpada. Gauero ohi genuenez hortzak garbitzera komunetara eraman genituen. Aurreko egunetan bueltakoan "Goazen ohera" abesten genuen "Guantanamera" doinuan; baina egun hartan ez zuten ezer abesteko gogo handirik agertu. Pasatu egin ginela iruditu zitzaigun; baina planaren 2. zatiarekin aurrera egin beharra zegoen.

—Oraindik ere gehiago izutu nahi al zenituzten gizajoak?

—Hura prestatzen hartu genituen lanak hartu ondoren dena alferrik galtzen utzi behar al genuen ba? Politena hortik aurrerakoa zen gainera.

—Gelako atearen kanpoaldean ate soinu batzuk entzun dira, eta pausoak. Zumaiako Nikolasen korroskada bat entzutea iruditu zait; zerri zikin hori! Ederra pasa zitzaion atzo! Goizean piper egin zuen, eta beroa jasan ezinik, dutxa hotz bat hartu eta ohe gainean etzan zen, larru bizirik. Kasualitatea, orduantxe sartu zen garbitzailea aterik jo gabe, eta honela galdetu omen zion: "Qué, ¿se levanta?" eta Nikolasek bere hankartera begiratu eta "No, no se levanta" erantzun omen zion. Hau duk elementua, hau! Amaiari ere kontatu diezaioket istorio hau, ez baitzait oso zakarra iruditzen. Baina orain kontua da inguruko gelatakoak jaikitzen hasi eta gosaltzera doazela jantokira. Eta laster klasera, UEUra horretara etorri omen gara-eta, teorian.

—Zer? Gu ere klasera mugituko al gara? —tentatu dut Amaia.

—Adarra jotzen ari al zara? Gaur txapa ederra tokatzen zaigu, gainera. Lakarrak eman behar du hitzaldia, gure fakultateko irakasle nazkagarri batek: "Euskara eta ahaidetasuna". Eta onenean utzi behar al dugu hau? Gainera, ni ere nekatuta nago. Jarraitu istorioarekin, jarraitu.

Erdi eserita hasi dudan istorioa, erdi etzanda kontatzen jarraituko dut. Tapia eta Leturiaren sauna dirudi gela alu honek; gutxienez Nikolasenean bezala dutxa gelan bertan balego! Baina aurten berandu matrikulatu naiz, eta zigor gisa, dutxarik gabeko gelan egon behar! Eskerrak behintzat Udalaren bekak oporraldi honen erdia ordaintzen didan! Aurrez aurre, hontzen modura, begi beltz eder horiek ia itxi ere ez ditu egiten neska honek. Horrelakoxe ikatz puskak zituen Zuazako beste kanpamentuko panpina hark. Nola izena zuen?

Ainhoa? Berdin da, igarotako urak ez omen du errota mugiarazten-eta. Gainera ez dut gogoratu nahi nola 1. kanpamentuko harroxko hark aurea hartu eta gau batean nola ezkutatu ziren goizeko ordu txikietan. Zer ari nintzen kontatzen?

—Zozketan niri "egokitu" zitzaidan On Torquatoren papera betetzea. Horretarako beltzez jantzi nintzen; kamiseta mangaluze beltza tirilla zuri batekin, ltxasok ekarri zuen gona beltza ere bai, sotana bat izango balitz bezala. Orduan ile motza nenbilkien, baina igerilekuan ibiltzeko txapel horietako bat ere jantzi nuen, haragi kolorekoa. Han ez zegoen ispilurik, baina elegante nengoela esan zidaten besteek, beldurgarri, barre artean. Disimuluan gure dendatik irten eta 6. kanpamentuaren ondoan zegoen basoan ezkutatu nintzen. Enbor baten gainean eseri nintzen, sastraka batzuen atzealdean. Seinalea entzundakoan kanpamentu aldera azalduko nintzen. Eguraldia aldatzen hasi zen. Haize pixka bat altxa zuen; haizearen txistuak soinu berezi batzuk ateratzen zituen.

—A zer misterioa! Zu zeu ez al zinen beldurtu?

—Ez pentsa! Soinu arraroak entzuten hasi nintzen. Alde batean eta bestean. Urduritzen hasia nintzen, baina gauza marroixka batzuk saltoka ikusi nituenean konturatu nintzen untxiak besterik ez zirela, haien zuloetako baten ondoan eseri nintzela. Pila bat daude irlan; horregatik hartu du beste izen hori, "Untxien irla", alegia. Bezperan bertan Barakaldoko mutil bat eramane nuen txoko hartara, zigor gisa, gauean hitz egin eta ingurukoak aztoratu besterik egiten ez zuelako, gaztelaniaz gainera. Baina gau hartan ni neu ere ari nintzen beldurtzen, beste soinu batzuk entzun baintuen atzealdean. Jiratu ere ez nintzen egin, ordea. Soinuak hurbilago entzuten hasi nintzen, eta bat-batean esku bat sentitu nuen sorbaldan. Salto batean zutitu eta jiratu nintzen, eta...

—Eta On Torquato ikusi zenuen! —bota dit erakuslearen muturra niri zuzenduz, mutur serioa jarrita, txantxetan.

—Baaaaai!! —esan diot, harrituta— Nola asmatu duzu?

—Haurrak engainatzeko balio duzu, eta ipuinak asmatzeko ere bai. Libururen bat idaztea ez al duzu inoiz pentsatu?

—Zeuk ikusi istorioa sinetsi ala ez, baina zera gertatu zen: aurrean neukana lbon zela, 5. kanpamentukoa, ni bezala apaizez jantzita, buruan panty zahar bat sartua zuela. Hantxe bertan muturreko bat eman ez nionean... Itxura denez, beldurraren gaua egin behar genuela entzun zutenean beraiek ere berdin egitea pentsatu zuten. Istorio hau ezaguna zen begiraleen artean, eta antzera kontatuko zuten. Ni bezala basoan sartu zenean, eserita ikusi ninduen. Bueltatzen ez nintzela ohartuta, susto eder bat ematea pentsatu zuen lbonek, kabroi horrek. Baita lortu ere!

—Ondo merezia zenuen, umetxoak horrela beldurtu nahi izateagatik.

—Baaaaale. Istorioarekin jarraitzea nahi al duzu? Ea oraindik ohetik bidaltzen zaitudan!

Eta ohetik lurrera botatzeko keinua egin dut.

—Lasai, mon amour —irribarrez, ezpainak bildurik— Atzo gauean ezagutu eta dagoeneko haserretu egin behar al dugu-edo?

—Bueno ba. lbonekin nengoen basoan. Zerri hark algara ederrak egin

zituen nire kontura, irla osoan entzuteko modukoak. Bezperako parrandaz hitz egiten ari ginen, kanpamentuaren bestaldeko basoan kanpai-hotsen tankerako zerbait entzun genuenean. Taaaaamm! Taaaaamm! Bakarren batek lo hartzea lortu bazuen, esnatuko zen, zalantzarik gabe, edota esnatuko zuten ingurukoek. Taaaaamm! Taaaaamm! Estitxu beste begiralea zegoen bestaldean, lapiko zahar bat astinduz; plana pentsatu bezala zihoan. Ibon agurtu eta gure kanpamentura hurreratzen hasi nintzen. Oihu eta iskanbila dezente sumatzen zen haurren denden inguruetan, eta negar-hotsen bat ere bai, tartean. Haizea gogortzen hasi zen, eta ni neu ere tentsioan nengoela konturatu nintzen; okerren bat edo lapurretaren bat egin behar banu bezala. Lau denda handi zeuden. Bat apartexeago geratzen zen, eta harantz hurbildu nintzen lehenbizi. Lonazko atea alde batetik ireki eta "Mendekua! Mendekua!" oihukatu nuen ahal nuen tonurik beldurgarrienean. Jaikita zeuden haurrak eta literetan binaka sartuta zeudenak lker begiralearen gainean pilatu ziren denak, "Amaaaaa!!" oihukatuz.

—A zer gaiztakeria zuena ere. Bizitza guztirako markatuta lagatzeko ere!

—Ke ba! Denda denetan sustotxoia eman eta gero kanpamentuaren erdian, nik arropak kendu eta dena gezurra zela esateko asmoa genuen, hasiera batean. Eta horrela bigarren dendako atea ireki nuen, eta "Mendekuuugggh!!!!" Ez nuen esaldia bukatzeko astirik izan. Hementxe, zuk lehen ukitu duzun leku honetantxe, mendiko laban handi horietako bat ikusi nuen, borborka ateratzen ari zen odol-iturriaren erdian. Labanaren heldulekuan esku bat, eskuaren bidea jarraituz aurpegi bat, irribarrez: Maialen zen, nire ardurapean zegoen neska isil hura. Ez naiz gehiago ezertaz oroitzen, baina aurpegi hura ez dut nire bizitzan ahaztuko. Luze erori nintzen atzera, zorabiatu. Ikustekoa izan omen zen han sortu zen zirkua. Koldo, zuzendaria etorri zen, sendagilea ekarri zuten, anbulantzia bestaldean zegoenez itsasontzian pasa ninduten; gero handik Gasteizko Txagorritxu ospitalera zuzenean... Izugarria!

—Gizajoa! —eta zauriaren marka laztantzen eta musukatzen hasi zait Amaia, txantxetan edo—. Oraintxe ahaztuta nuen nolatan hasi zaren istorioa kontatzen. On Torkuato irlatik bidaltzea lortu zuen, baina oroigarri ederra utzi zizun munstro txiki hark!

—Bai, badakizu. Gaur egungo haurrekin ez dago fidatzerik. Ikastolan egunero izaten ditut umeak inguruan eta arriskutsuak dira, oso. Bestelako lanen bat ere hartuko nuke, itxurazko bat eskainiko balidate. Power Rangers, Dragoi-bolak eta bortizkeriaz jositako marrazki bizidun japoniar horiek ikusten dituzte, ordenagailuen aurrean Ranborenak eginez zoratu egiten dira eta ikusten duzenez, gero edozer gauza egiteko gai dira.

—Arrazoi duzu, bai. Nik ere ez daukat oraingoz haurrik izateko asmorik; beldur pixka bat ematen dit —burua altxa eta eserita jarri da ohe gainean, aurpegiera aldatuz—. Kontuak kontu, aizu! Kondoirik geratzen al zaigu?

—Bai, bakarren bat badagoela uste dut, hor mahaitxoaren gainean.

—Ba bengia, Torkuato. Aitaren, semenaren eta espiritu santubaren izenean, amen, goazen zure kastitatearekiko boto hori berriz ere haustera, goazen, goazen. Mendekua! Mendekua!

Linguistikako irakaspenak behintzat ederki jarri ditugu praktikan, mihiak dantzan hastearekin batera. Izan ere piper eginez gero, klasekoa errekuperatu

beharra dago. Badu, bai, gatza eta piperra neska honek, Aginagako piperra baino bixiagoa da, eta argia dirudi. Ohe gainean mugimendukoa da, gainera. Ez dakit Zuazako istorioa sinetsi duen ala ez, baina kontxo!, berak esan duen bezala, istorio honekin ipuinen bat idatz liteke. Baina Oier, hau ez duk horretan pentsatzeko momentua!!